


t x o s t e n a
2021
m e m o r i a



elkar-lan
S . C O O P .

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

“ELKAR-LAN, S.COOP.
Kooperatibak Sustatzeko
Elkarteak” 2021 Txosten
honetan jasotzen du 2021
ekitaldian zehar burutu
duen kudeaketa, bere
helburu soziala beteaz,
hau da, Euskadin kooperatiba
berrien eraketa sustatzea.

La Sociedad para la
Promoción de Cooperativas
ELKAR-LAN, S.COOP.
recoge en la presente
Memoria 2021 la gestión
que ha desarrollado a lo
largo del ejercicio 2021
en el cumplimiento de su
objeto social de promover
la creación de nuevas
Cooperativas en Euskadi.

t x o s t e n a
2021
m e m o r i a



elkar-lan
S . C O O P .

KOOPERATIBAK SUSTATZEKO ELKARTEA
SOCIEDAD PARA LA PROMOCIÓN DE COOPERATIVAS

aurkibideaíndice

I. ORGANO SOZIALAK	I. ÓRGANOS SOCIALES	5
II. LEHENDAKARIAREN AGURRA	II. SALUDO DEL PRESIDENTE	9
III. INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA	III. INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN	13
IV. PRESTAKUNTZA	IV. FORMACIÓN	31
V. AHOLKULARITZA ETA KOOPERATIBEN ERAKETA	V. ASESORAMIENTO Y CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS	35
VI. TUTORETZA JARRAIPENA	VI. TUTORIZACIÓN SEGUIMIENTO	39
VII. 2021EAN ELKAR-LAN, S. COOP. SOZIETATEARI LOTU ZAIZKION KOOPERATIBA BERRIEN ZERRENDA	VII. RELACIÓN DE NUEVAS COOPERATIVAS VINCULADAS A ELKAR-LAN, S. COOP. EN 2021	41
VIII. ELKAR-LAN, S. COOP. SOZIETATEARI DIRUZ LAGUNDU DIOTEN KOOPERATIBEN ZERRENDA	VIII. RELACIÓN DE COOPERATIVAS QUE HAN COLABORADO ECONÓMICAMENTE CON ELKAR-LAN, S. COOP.	97



ORGANO SOZIALAK
ÓRGANOS SOCIALES

BATZAR NAGUSIA ASAMBLEA GENERAL



EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA (EKGK-CSCE)
CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI (CSCE)



KONFEKOOP

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Confederación de Cooperativas de Euskadi

EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA (EKK-CCE)
CONFEDERACIÓN DE COOPERATIVAS DE EUSKADI (CCE)

KONTSEILU ERREKTOREA CONSEJO RECTOR



LEHENDAKARIA
PRESIDENTE

Iñaki
Nubla Otaola
KONFEKOOP



LEHENDAKARIORDEA
VICEPRESIDENTE

Mikel
Larrea Azpeitia
KONFEKOOP



IDAZKARIA
SECRETARIO

Patxi
Olabarria
Furundarena
CSCE-EKGK

KIDEAK VOCALES



Aitor
Irure Espín
KONFEKOOP



Juan Manuel
Cano Pérez
KONFEKOOP



Belén
Balerdi Ozaeta
CSCE-EKGK




Pablo
Durana Duque
CSCE-EKGK



Iñaki
Peña Gómez
KONFEKOOP

ZUZENDARIA DIRECTOR



Fco. Javier
Sanz Santaolalla



LEHENDAKARIAREN AGURRA
SALUDO DEL PRESIDENTE

Aurreko urtea, 2020a, oso gogorra izan zen; pandemiak ondorio latzak ekarri zizkigun maila guztietan, osasun-, enpresa- zein gizarte-mailan. Hala ere, itxaropentsu geunden. Txertoak iritsi ziren, Brexitaren auzia lasaitu zen, Etxe Zurian Bidenek hartu zuen Trumpen lekua, ekonomia suspertzen hasia zen eta beste adierazle on batzuk ere bazeuden. Horregatik, urtearen lehen zatia esperantzazkoa izan zen. Baina uda baino lehen gauzak okertu egin ziren berriro. COVID-19aren aldaera berriak eta kutsatze-kasuen gorakada, logistika-arazoak nazioarteko garraioan, Asiarekiko mendekotasuna, txipen eta lehengaien eskasia, eta energiaren garestitzea izan dira, besteak beste, berriro ere ziurgabetasun-egoerara eraman gaituzten faktoreak.

ELKAR-LAN S. COOP. sozietateari dagokionez, pozik jakinarazten dizuegu 2021ean nabarmen egin duela gora kooperatiben sorrerak. Hala, atzean utzi dugu 2020ko beherakada handia. Urte horretan 113 kooperatiba sortu genituen ELKAR-LANen, eta 2021ean, berriz, 149, hau da, 36 gehiago. Sortutako kooperatiben kopuru hori ELKAR-LANen historiako bigarren errekorra izan da. Sortutako lanpostuen kopurua ere bikaina izan da: 400 inguru. Era berean, EAEn 225 kooperatiba eratu dira guztira 2021ean, aurreko urtean baino 87 gehiago.

Gainera, gure tutoretza- eta jarraipen-jarduerak ohiko erritmoa berreskuratu du, eta 262 kooperatibarekin egin dugu lan, 2020an baino 26 gehiagorekin. Beste arlo batzuetan ere, ekintzaileei eta preskriptoreei bideratutako zabalkundean eta komunikazioan, esaterako, jarduerari berrekin diogu; hori bai, batez ere formatu telemati-koan.

Veníamos de un año muy duro, el 2020, donde la pandemia se había cebado en nosotras, a todos los niveles, sanitario, empresarial y social. Con todo, estábamos ilusionadas. Las recién llegadas vacunas, la relajación del Brexit, la salida de Trump y la llegada de Biden a la Casa Blanca, así como la incipiente recuperación económica, unida a otros buenos indicadores apuntaban a ello. Por ello, la primera parte del año fue muy esperanzadora. Sin embargo, antes del verano las cosas se volvieron a torcer. Las nuevas variantes del COVID-19 y el incremento de los contagios, los problemas logísticos con el transporte internacional, nuestra dependencia asiática, la falta de chips y materias primas y el encarecimiento de la energía, entre otros, nos volvieron a situar en un escenario de incertidumbre.

Por lo que se refiere a ELKAR-LAN, S. COOP., nos satisface poder compartir que en 2021 ha habido un importante incremento en la creación de cooperativas. La fuerte bajada habida en el año 2020 se ha superado. Frente a las 113 cooperativas que creamos en ELKAR-LAN, S. COOP. en 2020, este ejercicio hemos creado 149 cooperativas, 36 más, logrando el segundo récord de creación de cooperativas en la historia de ELKAR-LAN, S. COOP. El número de puestos de trabajo creados, cerca de 400, también ha sido una excelente cifra. Igualmente, destacar que el conjunto de cooperativas constituidas en la CAV, 225, supera en 87 a las creadas en el año 2020.

También, nuestra actividad de tutorización y seguimiento ha recuperado su tono habitual, llegando a las 262 cooperativas, 26 más que el año pasado. Igualmente, en otros aspectos, como nuestra actividad difusora y comunicadora a emprendedores y prescriptores, ha retomado su actividad, si bien, mayoritariamente en formato telemático.

Edozein enpresatan —eta are gehiago irabazi-asmorik gabekoetan— hain garrantzitsua den emaitza-kontuak ere bilakaera ona izan du, kudeaketa onaren erakusgarri. Memoriaren bukaeran erantsi ditugu sortutako kooperatiben zerrenda eta enpresa horien identifikazio-datu batzuk.

Bestalde, ekintzaileak zoriondu nahi ditugu, ametsa gauzatu dutelako, eta ELKAR-LAN S. COOP. sozietateko zuzendaritzari eta langileei esker ona adierazi, ekintzaileei enpresa eratzen laguntzeko eginkizun zintzo eta pozgarrian eguneroko egiten duten lanagatik. Eskerrak Kontseilu Errektoreko kideei ere, CSCE-EKGK - Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren eta KONFEKOOP - Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren izenean, zentzuzko aholkuak emateagatik. Eskerrik asko, gainera, kooperatiba laguntzaileei eta, bereziki, erakundeei, Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, ekintzailetza kolektiboko programetan gure entitatearen parte-hartzea ahalbidetu dutelako.

Azkenik, memoria lasaitasunez irakurtzera eta egokitzen jotzen dituen alderdietan sakontzera gonbidatzen dugu irakurlea. Haren esanetara gaude argibideak eskaintzeko eta iradokizunak jasotzeko.

Iñaki Nubla Otaola
Lehendakaria

Además, algo tan importante en cualquier empresa y máximo sin ánimo de lucro, como es la cuenta de resultados, también ha tenido un buen comportamiento, exponente de una buena gestión. Al final de la memoria adjuntamos la relación de cooperativas creadas y algunos datos identificativos de las mismas.

Por otra parte, felicitar a las personas emprendedoras por la materialización de su sueño, agradecer a la dirección y personas trabajadoras de ELKAR-LAN, S. COOP. el esfuerzo diario en esta actividad tan noble y gratificante como poder ayudar a las emprendedoras a constituir su empresa. También a las personas del Consejo Rector, en representación del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi - CSCE-EKGK y de la Confederación de Cooperativas de Euskadi - KONFEKOOP por su sabio consejo. Lo mismo a las cooperativas colaboradoras y muy especialmente a las instituciones, Gobierno Vasco y Diputación Foral de Bizkaia, por posibilitar la participación de nuestra entidad en sus programas de emprendimiento colectivo.

Por último, animar al lector/a a una lectura pausada de la memoria y a profundizar en cuantos aspectos considere oportuno, poniéndonos a su disposición para cualquier aclaración o sugerencia.

Iñaki Nubla Otaola
Presidente

GURE ESKER ONA

ELKAR-LAN S. COOP. sozietateko Kontseilu Errektoreak eskerrak eman nahi dizkie kooperatibako langile guztiei, 2021ean egindako lan handiagatik, eta, aldi berean, bide emankor horretan jarraitzera animatu nahi ditu.

Gure esker ona, halaber, euren laguntza eskaini diguten erakunde publiko eta pribatu guztiei. Aipamen berezia egin nahi diegu Eusko Jaurritzako Lan eta Enplegu Sailaren Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailari.

Eta, jakina, ELKAR-LAN S. COOP. kooperatibako bi erakunde bazkideetako (CSCE-EKGK - Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluko eta KONFEKOOP Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko) arduradunei, bai eta laguntza eskaini diguten gainerako kooperatibei ere (2021eko memoria honetan jasota dago zerrenda).

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu ELKAR-LAN S. COOP. sozietatearekin lankidetzan aritu diren aholkularitza-enpresei, tokiko garapen-agentziei, landa-garapeneko agentziei, kuadrillei, udal-erakundeei eta bestelako erakundeei. Horiei guztiei esker, oso emaitza onak lortu ditugu sustapen kooperatiboaren arloan, batez ere Euskal Autonomia Erkidegoan, 149 kooperatiba sortzen lagundu baitute.


AGRADECIMIENTOS

El Consejo Rector de ELKAR-LAN, S. COOP. quiere agradecer al conjunto de las personas trabajadoras que forman parte de ELKAR-LAN, S. COOP. por el gran trabajo que han llevado a cabo en 2021, a la par que los anima a seguir por este fructífero camino.

Agradecemos también al conjunto de instituciones públicas y privadas que nos han ofrecido su colaboración y en especial a la Dirección de Economía Social del Departamento de Trabajo y Empleo y al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia.

Y, por supuesto, a los responsables de las dos entidades socias de ELKAR-LAN, S. COOP. (Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi -CSCE-EKGK- y Confederación de Cooperativas de Euskadi -KONFEKOOP-), así como a las cooperativas que nos han apoyado y cuya relación se recoge en el interior de esta Memoria 2021.

Extendemos también nuestro agradecimiento al conjunto de asesorías, agencias de desarrollo local, agencias de desarrollo rural, cuadrillas, entidades municipales y otras instituciones que han colaborado con ELKAR-LAN, S. COOP. para hacer posible los resultados que hemos obtenido en materia de promoción cooperativa y que se han concentrado principalmente en el apoyo a la constitución de 149 cooperativas en la Comunidad Autónoma Vasca.



INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA
INFORMACIÓN Y DIFUSIÓN

COVID-19aren pandemia ganean dugula amaitu dugu gure hemeretzigarren ekitaldia, eta harro gaudere gure kudeaketa-planean ezarritako aurreikuspen nagusiak gainditu ditugulako, eta, bereziki, gure lehentasunezko helburua bete ahal izan dugulako; hau da, kooperatiba berriak sortzen lagundu dugulako. Horretarako, egoera berrietara egokitu gara, eta gure sozietate-eredu berezia —bazkideen parte-hartzea modu erreal eta legalean ahalbidetzen duen bakarra— sustatzen jarraitu dugu.

Gaur egun enpresetan pertsonen benetako partaidetzaren garrantzia aitortzen ari dela kontuan izanda, aldarrikatzen jarraitu behar dugu sozietate kooperatiboa dela pertsonen partaidetza-eredu gorena gizarte-ekonomiako sozietate-mota guztien artean.

Gure hartzaile potentzialei kooperatiba zer den jakinarazi diegu: haren ezaugarriak, bere burua barnetik arautzeko aukera, haren zerga-erregimen berezia, berariazko laguntzak, kontabilitate-berezitasunak, lan elkartuko kooperatibek Gizarte Segurantzako araubide orokorraren edo langile autonomoen araubide bereziaren artean aukeratu ahal izatea eta abar. Azken buruan, beste sozietate-eredu batzuen aldean kooperatibak dituen desberdintasunen eta onuren berri eman diegu.

Sortu ginenetik, kooperatiba-eredua zabaltzen eta gomendatzen laguntzen diguten erakundeekin eta pertsonen sare bat sortzea, mantentzea eta handitzea izan da gure apustu bat, eta gure esker ona adierazi nahi diegu, lan bikaina egin dutelako, eta gurekin jarraitzea animatu nahi ditugu, gure eredu gero eta ezagunagoa eta erabiliagoa izan dadin. Horregatik guztiatik, gure berri zuten pertsonekin eta erakundeekin genituen harremanak zaindu eta indartu ditugu, Gainera, harremanak kudeatu eta sortu ditugu beste erakunde eta pertsona batzuekin, ELKAR-LANen errealitatea eta lankidetzarako bideak ezagutarazteko, betiere haien beharrak aintzat hartuta.

Hona hemen helburu hori lortzeko burutu ditugun jarduerak:

Hemos concluido nuestro decimonoveno ejercicio acompañados de la pandemia de covid 19 y estamos satisfechos de haber superado las principales las previsiones fijadas en nuestro plan de gestión y, especialmente, al haber podido llevar a cabo el cumplimiento de nuestro objetivo prioritario, que no es otro que contribuir a la creación de nuevas cooperativas, para lo cual nos hemos adaptado a las nuevas situaciones y hemos seguido con las actuaciones de difusión de nuestro peculiar modelo societario, que sigue siendo el único que posibilita de forma real y legal la participación de las personas socias que las integran.

Seguimos reivindicando, y más aún en estos momentos en los que se está reconociendo la importancia de la participación real de las personas en las empresas, que la sociedad participada por excelencia, en su máxima expresión, dentro de las diferentes modalidades societarias de la Economía Social, es la Sociedad Cooperativa.

Hemos dado a conocer entre nuestros potenciales destinatarios lo que es una cooperativa, sus peculiaridades, su posibilidad de autorregularse de forma interna, el régimen fiscal especial que tienen, sus ayudas específicas, las especialidades contables, la posibilidad de optar/elegir el encuadramiento en la Seguridad Social, en el caso de las Cooperativas de Trabajo Asociado, entre el Régimen General y el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos; en definitiva, resaltando sus ventajas y sus diferencias respecto a otras configuraciones societarias.

Desde nuestra constitución hemos apostado por la generación, mantenimiento y crecimiento de una red de entidades y personas colaboradoras en toda nuestra actividad de difusión y prescripción del modelo cooperativo, y queremos dejar constancia de nuestro agradecimiento expreso, por su magnífica labor, y les instamos a que continúen con nosotros para nuestro modelo que cada vez sea más conocido y aplicado. Por todo ello, hemos atendido y reforzado las relaciones con las personas y entidades que ya tenían conocimiento de nuestra existencia y, al mismo tiempo, hemos gestionado y generado con nuevas entidades y personas, los correspondientes contactos para darles a conocer la realidad de ELKAR-LAN, S. COOP. y todas las vías de colaboración que les brindamos, adaptándonos a sus necesidades.

Para abordar dichos objetivos se han realizado las siguientes actuaciones:

1.- ELKAR-LAN S. COOP. ETA BERAREN JARDUERAK AURKEZTEKO BANAKAKO BILERAK ETA DAGOENEO EZAGUTZEN GAITUZTEN ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

Honako erakunde hauekin bildu gara:

ENPRESA- ETA BERRIKUNTZA-ZENTROAK ETA ENPRESAK SUSTATZEKO ZENTROAK

Eutsi egin diegu zentro horiekiko harremani, bai haiek eskatuta, bai gure ekimenez.

TOKIKO GARAPEN-AGENTZIAK, KUADRILLAK ETA BEHARGINTZA ZENTROAK

Horiekin guztiekin izan ditugu harreman onak eta zuzenak, bakoitzak izendatutako solaskideen bidez, eta, eskatu digutenean, eredu kooperatiboa ezagutu nahi duten sustatzaileekin bilerak egin ditugu haien lokaletan. Urrats hori ezinbestekoa da sustatzaileek kooperatiba-elkarteen eredia ezagutu dezaten, eta hausnar dezaten ea komeni zaien euren enpresa-proiektua kooperatiba gisa gauzatzea, sozietateak eratzeko dauden aukera guztien artean.

Ekitaldi honetan Arabako zazpi kuadrillekin lankidetzan aritzeko eskaintza egin dugu: Añana, Aiara, Kanpezu-Mendialdea, Guardia-Arabar Errioxa, Gorbeialdea, Arabako Lautada eta Gasteiz. Erakunde horietako teknikari batzuekin harremanetan izan gara.

Eta Bizkaiko Behargintza zentro hauekin batera ere egin dugu lan: Basauri-Etxebarri, Bermeo, Bilbao Ekintza, Durango, Enkurtur, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguralde, Leioa, Portugalete, Sestao, Santurtzi, Sondika eta Txorierrri.

DEMA Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentziarekin ere harremanak izan ditugu, eta ekitaldiak egin ditugu.

Eta Gipuzkoako tokiko garapen-agentzia hauekin: Beterri-Buruntza Udalak, Urola Kostako Udal Elkar-tea, Debegesa, Ugassa, Oarsoaldea, Debagoieneko

1.- REUNIONES INDIVIDUALES DE PRESENTACIÓN DE ELKAR-LAN, S. COOP., ASÍ COMO DE SUS ACTIVIDADES Y RELACIONES CON ENTIDADES QUE YA NOS CONOCEN

Estas reuniones, se han celebrado con las entidades siguientes:

CENTROS DE EMPRESAS E INNOVACIÓN Y CENTROS DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL

Hemos mantenido contactos con dichos centros, tanto a instancia de ellos como por nuestra propia iniciativa.

AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL, CUADRILLAS Y CENTROS BEHARGINTZA

Hemos mantenido con todas ellas contactos fluidos y directos con la personas designadas como interlocutoras y, cuando éstas así nos lo han requerido, hemos asistido a reuniones que hemos mantenido en sus locales, con las personas promotoras interesadas en conocer el modelo cooperativo, paso este imprescindible para que podamos hacer reflexionar a las personas promotoras sobre la conveniencia de poder realizar su proyecto empresarial en la forma societaria cooperativa, así como para que conozcan dicho modelo y puedan barajarlo entre las diferentes opciones societarias.

En este ejercicio hemos realizado un ofrecimiento de colaboración con las siete Cuadrillas de Álava: Añana, Ayala, Campezo-Montaña Alavesa, Laguardia-Rioja Alavesa, Gorbeialdea, Llanada Alavesa y Vitoria-Gasteiz, y hemos tenido relaciones con algunas de sus personas técnicas.

Y con los siguientes centros Behargintza de Bizkaia: Basauri-Etxebarri, Bermeo, Bilbao Ekintza, Durango, Enkurtur, Erandio, Ermua, Galdakao, Gernika-Lumo, Getxolan, Inguralde, Leioa, Portugalete, Sestao, Santurtzi, Sondika y Txorierrri.

También hemos mantenido contactos y realizado eventos con la Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento DEMA.

Y con las Agencias de Desarrollo Local de Gipuzkoa siguientes: Beterri-Buruntza Udalak, Urola Kostako Udal Elkar-tea, Debegesa, Ugassa, Oarsoaldea, De-

Mankomunitatea, Bidasoa Bizirik, Iraurgi Berritzen eta Tolosaldea Garatzen.

Aipamen berezia merezi dute Gasteizko Udalak, DEMAk eta Ermuko Behargintzak.

Gasteizko Udaleko Ekonomia-sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailaren bitartez harreman estua izan dugu pertsona ekintzaileekin. Pandemiaren ondorioz ez dugu parte hartu aurrez aurreko jardunaldietan, baina bai zuzeneko bideokonferentzia bidez gizarte-ekonomiari buruzko zazpi jardunalditan (apirilaren 20an, maiatzaren 12an, ekainaren 8an, uztailaren 6an, irailaren 22an, urriaren 25ean eta abenduaren 21ean). Ekitaldi horietan eredu kooperatiboaren aurkeztu genuen, eta sozietate kooperatiboaren ereduaren alde egin nahi duten ekintzaileen proiektuak sustatzeko prest azaldu ginen.

Orobat, Ermuko Behargintzaren kasuan, erakunde horretako arduradunak berariaz eskatuta, euren lokaletan izan gara eredu kooperatiboaren interesa duten sustatzaileei laguntzeko.

DEMAren kasuan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Enplegu eta Ekintzailetza Foru Agentzia den aldetik, antolatutuen ekitaldi guztietan hartu dugu parte. Halaber, oso harreman onak eta jarraituak izan ditugu agentziak gurekin aritzeko izendatutako pertsona guztiekin, bereziki teknikariek, sozietate kooperatiboaren ereduaren alde egin duten ekintzaile guztien proiektuetan. Agentziako Zerbitzu Orokorren zuzendari Beatriz Morcilloekin ere oso harreman estua izan dugu. Eta Bizkaia SAREKIN ekintzailetza-sarean ere lankidetzan jardun dugu.

UDALAK

Gure entitatea EAEko udalei ezagutzera emate aldera, lankidetzaren eskaintza bat egin genien haiei guztiei euren udalerrian gutxienez bi lanpostu sor zitzaketen proiektu guztietarako. Gure jarduera guztiak haien eskura jarriko genituela adierazi genien, proiektuen sustatzaileek kooperatiba-sozietatea eratuz gero.

bagoieneko Mankomunitatea, Bidasoa Activa, Iraurgi Berritzen y Tolosaldea Garatzen.

Una mención especial se merecen el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, DEMA y la Behargintza de Ermua.

Con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, con su Departamento de Promoción Económica, Empleo, Comercio y Turismo, hemos tenido una relación intensa con las personas emprendedoras en este ejercicio en el que la pandemia si bien nos ha imposibilitado realizar nuestra participación en jornadas presenciales, las hemos realizado de forma no presencial, mediante videoconferencia en directo, en concreto durante siete jornadas de economía social (20 de abril, 12 de mayo, 8 de junio, 6 de julio, 22 de septiembre, 25 de octubre y 21 de diciembre) donde presentábamos el modelo cooperativo y nos ofrecíamos a promover sus proyectos siempre que optasen por la configuración societaria cooperativa.

Así mismo, con la Behargintza de Ermua hemos comparecido por petición expresa de la persona responsable de la citada entidad, en sus locales, para atender a las personas promotoras interesadas en el modelo cooperativo.

Con DEMA, como Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento, promovida por la Diputación Foral de Bizkaia, hemos participado en todos los eventos que ha convocado y organizado y así mismo, hemos mantenido contactos fluidos y continuos con todas las personas designadas como nuestras interlocutoras, especialmente con sus personas técnicas, en todos aquellos proyectos en los que las personas emprendedoras se decantan por la configuración societaria de la cooperativa, así como con su Directora de Servicios Generales Dña. Beatriz Morcillo. Y también estamos colaborando en la red de emprendimiento de Bizkaia SAREKIN.

AYUNTAMIENTOS

Con el objetivo de dar a conocer nuestra entidad a ayuntamientos de la CAPV, hemos procedido a realizar a todos los ayuntamientos un ofrecimiento de colaboración para todos los proyectos que en sus respectivos municipios pudiesen generar al menos dos puestos de trabajo, al objeto de poder prestarles todas nuestras actividades en el caso de que pudiesen constituirse como sociedades cooperativas.

GIZARTE-EKONOMIAKO ZUZENDARITZA

Harreman onak izan ditugu Jokin Díaz Arsuaga Gizarte Ekonomiako zuzendariarekin, Alfredo Ispizuarekin (Aholkularitza Juridikoko arduraduna), eta Ander Rahm (Laguntzak) eta Joseba Linaza (Laguntzak) teknikariek.

LANBIDE

Gure entitatea ezagutzera emate aldera, lankidetzaz eskaintza bat egin genien Lanbideren bulego guztiei, gutxienez bi lanpostu sor zitzaketen autoenplegu kolektiboko proiektua abian jarri nahi zuten ekintzaileen egitasmoak laguntzeko. Gure jarduera guztiak haien eskura jarriko genituela adierazi genien, proiektuen sustatzaileek kooperatiba-sozietatea eratuz gero.

Era berean, gure entitatea aurkeztu genuen Lanbideren egoitza nagusian. Bertan izan ziren Maria Gloria Múgica Conde zuzendaria, Elena Pérez Barredo Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuordea eta Jokin Díaz Arsuaga Gizarte Ekonomiako zuzendaria. Francisco Javier Sanz ELKAR-LAN S. COOP. sozietatearen zuzendariak egin zuen aurkezpena. Ondoan izan zituen Rosa Lavín Ibarra KONFEKOOPEko lehendakaria eta Iñaki Nubla Otaola gure entitateko lehendakaria (Lanbide, Gasteiz, 2021-03-10).

GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZTA OROKORRA

Hainbat gestio egin ditugu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorreko bulegoetako teknika-riekin, ekitaldian zehar sortu ditugun kooperatiben beharren arabera.

ESTATUKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA (SEPE)

Hainbat gestio eta bilera egin ditugu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) EAEko probintzia-zuzendaritzetako arduradun eta teknikariek, baita tokiko bulego gehienekin ere.

DIRECCIÓN DE ECONOMÍA SOCIAL

Hemos mantenido fluidas relaciones tanto con su Director de Economía Social, D. Jokin Díaz Arsuaga y con D. Alfredo Ispizua (Responsable de Asesoría Jurídica), y con los técnicos D. Ander Rahm (Ayudas) y D. Joseba Linaza (Ayudas).

LANBIDE

Con el objetivo de dar a conocer nuestra entidad, hemos procedido a realizar a todas las oficinas de Lanbide un ofrecimiento de colaboración para todos los proyectos que pudiesen conocer de personas emprendedoras que quisieran poner en marcha proyecto de autoempleo colectivo que pudiesen generar al menos dos puestos de trabajo, al objeto de poder prestarles toda la gama de nuestras actividades que pudiesen precisar en el caso de que pudiesen constituirse como sociedades cooperativas.

Así mismo realizamos, en la sede social central de Lanbide, la presentación de nuestra entidad, a su Directora Dña. María Gloria Múgica Conde, que estuvo acompañada de la Viceconsejera de Trabajo y Seguridad Social Dña. Elena Pérez Barredo y del Director de Economía Social D. Jokin Díaz Arsuaga. La presentación la realizó el Director de ELKAR-LAN, S. COOP. D. Francisco Javier Sanz, que estuvo acompañado de la Presidenta de KONFEKOOPE Dña. Rosa Lavín Ibarra y del Presidente de nuestra entidad D. Iñaki Nubla Otaola. (Lanbide. Vitoria-Gasteiz, 10-03-2021)

TESORERÍA GENERAL DE LA SEGURIDAD SOCIAL

Se han realizado diferentes gestiones con las técnicas y técnicos de las oficinas de la Tesorería General de la Seguridad Social de cada uno de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, en función de las necesidades de las cooperativas que hemos constituido a lo largo del ejercicio.

SERVICIO PÚBLICO DE EMPLEO ESTATAL (SEPE)

Se han realizado diferentes gestiones y reuniones con las personas responsables y técnicas de las tres Direcciones Provinciales de la CAPV del Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE), así como en la mayoría de su red de oficinas locales.

MERKATARITZA-GANBERAK

Harreman ugari izan dugu ganbera guztiekin. Horretaz gain, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Merkataritza Ganberetako Enpresak Sortzen eta Sendotzen Laguntzeko Zerbitzutik bidali dizkiguten sustatzailerekin bildu gara.

KONTSULTORETZAK ETA AHOLKULARITZAK

Arreta pertsonalizatu berezia eskaintzen jarraitzen dugu, 2021eko Memoriaren kapitulu honetako 10. atalean agertzen den bezala.

FUNDAZIOAK ETA ELKARTEAK

Honako hauekin izan dugu harremana:

- Michelin Fundazioa
- Azaro Fundazioa
- Gaztenpresa Fundazioa
- Mugarik Gabeko Ekonomialariak Fundazioa
- Mundukide Fundazioa
- Lan Enpresen Nafarroako Elkarte (ANEL)
- Bizkaiko Work-Lan elkarte
- Kooperatiba Zuzenbideko Nazioarteko Elkarte (AIDC)

FORU-ALDUNDIAK

Harremanetan egon gara gure autonomia-erkidegoko hiru lurralde historikoetan sustatutako kooperatibentzat interesgarriak diren eskumenak eta erantzukizunak dituzten sailekin. Dena den, Bizkaiko Foru Aldundiarekin izan ditugu harremanik estuenak, langabezian eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonen autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko 2021eko ekitaldiko dirulaguntza-deialdien bidez (77/2021 FORU DEKRETUA, maiatzaren 25ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena). Harremanak izan ditugu, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuarekin eta Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuarekin.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailean Ekintzaitza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko zuzendari nagusia den Joseba Mariezkurrena Cuestari aurkeztu genion gure erakundea, eta bileran harekin batera egon zen Ander Muñoz Urbizu Beazeko Berrikuntza eta Proiektu Estrategikoetako zuzendaria (Ekonomia Sustatzeko Saila, Bilbo, 2021-04-22).

CÁMARAS DE COMERCIO

Hemos tenido fluidas relaciones con todas ellas y se ha atendido a las personas promotoras que nos han remitido desde el Servicio de Apoyo a la Creación y Consolidación de Empresas de las Cámaras de Comercio de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

CONSULTORÍAS Y ASESORÍAS

Siguen siendo objeto de una especial atención personalizada, tal y como se refleja en el apartado 10 de este capítulo de la Memoria 2021.

FUNDACIONES Y ASOCIACIONES

Se han mantenido relaciones con:

- Fundación Michelin
- Azaro Fundazioa
- Fundación Gaztenpresa
- Fundación Economistas Sin Fronteras
- Mundukide Fundazioa
- Asociación Navarra de Empresas Laborales (ANEL)
- Asociación Work-Lan de Bizkaia
- Asociación Internacional de Derecho Cooperativo (AIDC)

DIPUTACIONES FORALES

Se han mantenido relaciones con los Departamentos, con competencias y responsabilidades de interés para las cooperativas que hemos promovido, de los tres Territorios Históricos de nuestra Comunidad Autónoma, si bien de forma más estrecha lo hemos hecho con la Diputación Foral de Bizkaia a través de las convocatorias de la concesión de subvenciones para el fomento del autoempleo y la creación de empresas para personas desempleadas y en riesgo de exclusión, para el ejercicio 2021 (DECRETO FORAL 77/2021, de 25 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia). También hemos tenido relaciones con la Diputación Foral de Gipuzkoa, con el Departamento de Hacienda y Finanzas y con el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

Presentamos nuestra entidad al Director de Emprendimiento y Competitividad Empresarial D. Joseba Mariezkurrena Cuesta, del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, el cual estuvo acompañado del Director de Innovación y Proyectos Estratégicos (Beaz), D. Ander Muñoz Urbizu (Departamento Promoción Económica. Bilbao: 22-04-2021).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuan Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia den Iker Estensoro Sarasolari aurkeztu genion gure erakundea (Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregia, Donostia, 2021-04-26).

BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ENPLEGUA, GIZARTERATZEA ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILA ETA DEMA

Sail horrek DEMAren (Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentziaren) bidez SAREKIN Bizkaiko Ekintzailtza Sarea sortzeko sustatutako proiektuko partaide gara. 2021eko ekitaldian, Enpresak Sortzeko eta Martxan Jartzeko Taldean hartu dugu parte, bai eta, gainera, Sarekin Week ekintzailtza II. Astean ere, «Kooperatiba-sozietatea, talde-ekintzailtzarako sozietate-forma egokia» bideokonferentzian. 2021-12-01ean egin zen, Youtube bidez.

EUSKADIKO TOKIKO GARAPEN AGENTZIEN ELKARTEA (GARAPEN)

Harreman onak ditugu elkarteko kudeatzaile Elisabet Urbietarekin eta Zerbitzu Orokorretako arduradun Ainara Egiluzekin, sozietate kooperatiboen ereduaren bidez gauzatu daitezkeen autoenplegu kolektiboko proiektuekin zerikusia duten gai guztietan.

Era berean, kooperatiba-sozietate txikiari buruzko online jardunaldia diseinatu eta eskaini genuen. Guztira 13 erakundek (tokiko garapeneko agentziak, Behargintza zentroak eta kuadrillak barne) eta 16 teknikari hartu zuten parte (2021-10-14).

EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA (KONFEKOOP)

Gipuzkoako Ogasun eta Finantza Departamentuak deitutako bilera batean hartu genuen parte. Departamentuko gai interesgarriak aztertu genituen hainbat erakunde eta taldetako ordezkariekin. Jokin Perona Lerchundi Ogasuneko diputatua izan zen bilera-buru, eta harekin batera partaide izan ziren Iruñe Yarza Ogasuneko zuzendaria, Bittori Zabala Zerga eta Finantza Politikako zuzendari nagusia, Yolanda Domínguez Román Zerga-kudeaketako zuzendariorde nagusia, Iñigo Balerdi Lizarralde Araugintzako eta Lege-aholkularitzako zerbitzu-buru, M^a del Coro Pereiro Zabala Ikuskaritzako zuzendariorde nagusia,

Presentamos nuestra entidad al Director de Promoción Económica D. Iker Estensoro Sarasola, del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, de la Diputación Foral de Gipuzkoa (Palacio de Diputación Foral. Donostia, 26-04-2021).

DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y DEMA

Formamos parte del proyecto que promovió el citado Departamento, a través de DEMA como Agencia Foral de Empleo y Emprendimiento, en la creación de la Red de Emprendimiento de Bizkaia SAREKIN, y durante el presente ejercicio hemos participado en el Grupo de Creación y Puesta en Marcha de Empresas y, además, hemos participado en la II Semana del emprendimiento Sarekin Week, con la videoconferencia “La sociedad cooperativa como forma societaria adecuada para el emprendimiento colectivo.” Se realizó el 01-12-2021 vía youtube.

ASOCIACIÓN DE AGENCIAS DE DESARROLLO LOCAL DE EUSKADI (GARAPEN)

Mantenemos relaciones fluidas con su Gerente Dña. Elisabet Urbiet y con la responsable de Servicios Generales Dña. Ainara Egiluz, para todas aquellas cuestiones que tienen que ver con proyectos de autoempleo colectivo en forma societaria cooperativa.

Así mismo, diseñamos e impartimos una jornada online sobre la sociedad cooperativa pequeña a la que asistieron 13 entidades (agencias de desarrollo local/centros Behargintza/cuadrillas) y 16 personas técnicas. (14-10-2021).

CONFEDERACIÓN COOPERATIVAS DE EUSKADI (KONFEKOOP)

Participamos por ofrecimiento del Departamento de Hacienda y Finanzas de Gipuzkoa, con representantes de diversos organismos y colectivos, con el objeto de tratar temas departamentales de interés, que estuvo presidido por el Diputado de Hacienda D. Jokin Perona Lerchundi, la Directora de Hacienda Dña. Iruñe Yarza, la Directora General de Política Fiscal y Financiera Dña. Bittori Zabala, la Subdirectora General de Gestión Tributaria Dña. Yolanda Domínguez Román, el Jefe de Servicio de Desarrollo Normativo y Asesoramiento Jurídico D. Iñigo Balerdi Lizarralde, por la Subdirectora General de Inspección Dña. M^a

eta Diego Almagro Idazkaritza Teknikoko zerbitzu teknikoetako kidea (Donostia, 2021-11-29).

UNIBERTSITATEAK ETA BESTELAKO ERAKUNDEAK

Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Ekonomiako eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutuak (GEZKI) eta Deustuko Unibertsitateko Gizarteko eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutuak antolatutako ekitaldi eta bileretan parte hartu dugu, bai eta Mondragon Unibertsitateak, Gasteizko Udalak eta hiru foru-aldundiek antolatutako ekitaldietan ere, memoria honetako 7. atalean azalduko dugunez.

2.- HERRI-ONURAKO ELKARTEA GARELA JAKINARAZTEA

2005etik, ELKAR-LAN S. COOP. sozietatea, egiten duen jarduera dela eta, herri-onurako kooperatibada; izan ere, **Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuak 2005eko martxoaren 16an emandako AGINDUAK herri-onurako elkartetzat izendatu zuen kooperatibak sustatzeko ELKAR-LAN S. COOP. kooperatiba-sozietatea** (2005eko apirilaren 25eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako agindua).

Gure jardueren hartzailleek herri-onurako izendapenaren berri izan dezaten, komunikazio- eta hedapen-ekintzak egin ditugu, agerian uzteko gure jarduerak Euskadiren interes orokorra sustatzen laguntzen dutela. Harro gaude horretaz, gure xedearekin eta kooperatibaren balio eta printzipioekin bat baitator.

3.- KOOPERATIBA BIHURTZEKO LAGUNTZEI ETA INTERESA DUTEN ENPRESAK BISITATZEARI BURUZKO ZIRKULARRAK EAE-KO ENPRESETAN MASIBOKI ZABALTZEA

Berriazko zirkular baten bidez, kooperatibak ez diren EAEko enpresa txikiak kooperatiba bihurtzeko laguntzen berri eman du ELKAR-LANek.

Jarduera horien ondorioz, 15 enpresak erakutsi zuten zirkular horien edukiarri buruzko interesa. Enpresa horietara bisita egin, beharrezko gestioak gauzatu eta

del Coro Pereiro Zabala y D. Diego Almagro, de los Servicios Técnicos de Secretaria Técnica (Donostia, 29-11-2021).

UNIVERSIDADES Y OTRAS ENTIDADES

Hemos participado en eventos y reuniones de los Institutos Cooperativos y de Economía Social de la Universidad del País Vasco (GEZKI) y de la Universidad de Deusto, así como con Mondragón Unibertsitatea, y también en eventos organizados por el Departamento de Promoción del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y de las Diputaciones Forales, tal como posteriormente se expondrá en el punto 7 de esta Memoria.

2.- DIFUSIÓN DE NUESTRA CONDICIÓN DE COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA

Desde el año 2005, ELKAR-LAN, S. COOP., por la actividad que realiza, es una Cooperativa de Utilidad Pública, a tenor de lo dispuesto en la **ORDEN de 16 de marzo de 2005, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se declara de utilidad pública a la sociedad cooperativa denominada Sociedad para la Promoción de Cooperativas ELKAR-LAN, S. COOP.** (Publicada en el Boletín Oficial del País Vasco de 20 de abril de 2005).

Y con el objetivo de que esta Declaración de Utilidad Pública sea conocida por los destinatarios de nuestras actuaciones, se han realizado las actuaciones de comunicación y de difusión, para poner de manifiesto que nuestras actividades están contribuyendo a la promoción del interés general de Euskadi, lo cual nos enorgullece, por ser coherente con nuestra misión y con los valores y principios cooperativos.

3.- DIFUSIÓN MASIVA DE CIRCULARES A EMPRESAS DE LA CAPV SOBRE AYUDAS PARA LA TRANSFORMACIÓN EN COOPERATIVAS Y VISITAS A LAS EMPRESAS INTERESADAS

ELKAR-LAN, S. COOP. ha informado a las empresas pequeñas no cooperativas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante una circular específica, de las ayudas existentes para su transformación en cooperativas.

Como fruto de estas actuaciones se visitaron y se realizaron gestiones con 15 empresas que se interesaron por su contenido, manteniendo siempre las

bilerak edo harremanak finkatu ziren jabeekin edo akziodun nagusiekin, zuzenean eta isilpean.

4.- IRUDI KORPORATIBOA ETA WEBGUNEA (www.elkarlan.coop)

Gure euskarri grafikoak erabiltzen eta optimizatzen ari gara, gure irudi korporatiboa zabaltzeko; esate baterako, jardueren memoria, triptikoak, zirkularrak, jardunaldien deialdiak eta web-orriak (www.elkarlan.coop).

Gure web-orriari dagokionez, etengabe eguneratzen dela eta sarean zabalpen handiagoa duela azpimarratu nahi dugu.

5.- HARREMANAK AUTONOMIA-ERKIDEGOKO NOTARIOTZEKIN, KOOPERATIBAK ERATZEKO LANA ERRAZTEKO

Kooperatiba-eredua hedatzea izanik gure helburu estrategikoetako bat, talde kualifikatu horrekin ere harreman estua mantentzen jarraitzen dugu. Horren ondorioz esan dezakegu oro har notariotzek era koordinatuan eta eraginkortasunez burutzen dituztela kooperatibak eratzeko izapideak. Azpimarratzen da, adibidez, kooperatiba eratzeko eskrituraren euskarri elektronikoa erabiltzen dutela. Harreman zuzenak eta onak izan ditugu notariotzekin ekitaldi honetan; hau da, gure jarduerak finkatu egin ditugu.

6.- HEDABIDEETAN EGINDAKO ELKARRIZKETAK ETA PARTE-HARTZEAK

Gure erakundea albistea izan da hainbat hedabideetan (telebista, irrati, egunkari eta ekonomia-arloko aldizkarietan), egin duen sustapen-jardueragatik. Aldizkari espezializatuetan ere agertu da, hala nola KOOP Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo eta Estrategia Empresarial aldizkarietan.

Horretaz gain, EAEko prentsa eta irrati garrantzitsuenetako batzuetan ere kolaborazioak egin ditugu, kooperatibak sustatzeko bokazioaren berri eman eta euskal gizartea kooperazioaren bidean bultzatzeko asmoarekin.

reuniones o relaciones con sus propietarios o con los accionistas mayoritarios, de forma directa y confidencial.

4.- IMAGEN CORPORATIVA Y PÁGINA WEB (www.elkarlan.coop)

Estamos aprovechando y optimizando nuestros diferentes soportes gráficos, desde la memoria de actividades hasta los trípticos, circulares, convocatorias de jornadas y la página web (www.elkarlan.coop), para difundir nuestra imagen corporativa.

En lo que se refiere a nuestra página web, queremos resaltar su actualización constante y su mayor difusión en la red.

5.- RELACIONES CON LAS NOTARÍAS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA PARA FACILITARLES SU TAREA EN LA CONSTITUCIÓN DE COOPERATIVAS

Siendo uno de nuestros objetivos estratégicos la difusión del modelo cooperativo, también con este colectivo tan cualificado hemos mantenido múltiples contactos y relaciones y, como consecuencia de ello, estamos percibiendo que, en general, las notarías están realizando las tramitaciones de las constituciones de cooperativas de una forma más coordinada y eficiente, sobre todo con la utilización de la escritura de constitución de la cooperativa en soporte electrónico. Ha sido un año de actuaciones directas y fluidas que ha venido a consolidar nuestras actuaciones con las notarías.

6.- ENTREVISTAS Y PARTICIPACIONES EN MEDIOS DE COMUNICACIÓN

Nuestra entidad ha sido noticia por su actividad promotora en diferentes medios de comunicación, tanto de televisión, radio, prensa diaria y de índole económica, así como en revistas especializadas tales como KOOP Euskal Enpresa Kooperatiboa, TU Lankide, Empresa y Trabajo Cooperativo y Estrategia Empresarial.

También ha participado y colaborado en diversos medios de comunicación, tanto escritos como en las radios de mayor implantación en nuestra Comunidad Autónoma, con el objetivo de transmitir nuestra vocación de promoción cooperativa y animar a la sociedad vasca a emprender cooperativamente.

7.- BESTE HAINBAT EKITALDITAKO PARTAIDETZA

ELKAR-LAN S. COOP. osatzen dugunok honako ekitaldi hauetan hartu dugu parte:

- Irakaskuntza-kooperatibak kudeatzeko eskuliburuaren errebisioan hartu dugu parte (bideokonferentzia bidezko bilerak: urtarrilaren 14an eta 27an, eta otsailaren 4an).
- Euskal Kooperatiba Mugimenduaren Batzorde Juridikoan hartu dugu parte, zergak eta kooperatiba-sozietate txikiak erreformatzeko proposamenen txostena egiteko. Gure zuzendaria da batzorde horretako koordinatzailea (Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 18an, otsailaren 16an eta 26an, eta martxoaren 3an).
- Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolamenduko eta funtzionamenduko erregelamendua gaineko aurreproiektua aztertu eta proposamenak egiteko bileretan hartu dugu parte (2021eko urtarrilaren 14an, otsailaren 28an eta apirilaren 12an).
- Kooperatiben Araubide Fiskalaren 20/1990 Legea, abenduaren 19koa, aldatzeko proiektuaren 12 bis artikulua idazketari dagokionez, HISPACOOpen proposamena eta gure Kooperatiben Legearen araudia bateragarri egiteko kudeaketa-lanez eta proposamena lantzeaz arduratu gara (2021-01-19).
- Gure lankidetzak eskaini ondoren, Izarra Centerrekin deitu ziguten. Bakoitzak bere erakundea aurkeztu ondoren, instalazioak erakutsi zizkiguten (2021-02-23).
- Estatutu sozialak Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, egokitzeari buruz KONFEKOOPEk antolatutako jardunaldian izan ginen (2021-02-10).
- I+G+B, Teknologia, Ekintzailtza eta Eraldaketa Digitalerako Eusko Jaurlaritzaren laguntzen aurkezpenean izan ginen, bideokonferentzia bidez (2021-02-24).
- Enpresa Ekimen Kooperatiboen Behatokiaren hamabosgarren txostena aurkeztu genien Jokin Diaz Arsuaga Gizarte Ekonomiako zuzendariari eta bi teknikariri (Lakua, Gasteiz, 2021-02-25).

7.- PARTICIPACIÓN EN DIFERENTES EVENTOS

Las personas que integramos ELKAR-LAN, S. COOP., hemos participado en los eventos siguientes:

- Participamos en la revisión del Manual Práctico de Gestión de Cooperativas de Enseñanza (Reuniones por videoconferencias: 14 de enero, 27 de enero y 4 de febrero).
- Participación en la Comisión Jurídica del Movimiento Cooperativo Vasco, de la que nuestro director es su coordinador, en la confección del informe de Propuestas de Reformas Tributarias y de las Sociedades Cooperativas Pequeñas (Vitoria-Gasteiz, 18 de enero, 16 y 26 de febrero y 3 de marzo de 2021).
- Participamos en reuniones de análisis y de propuestas sobre el anteproyecto del Reglamento de Organización y Funcionamiento del Registro de Cooperativas de Euskadi (14 de enero, 28 de febrero y 12 de abril de 2021).
- Gestiones y elaboración de una propuesta para conciliar la propuesta de HISPACOO con la regulación de nuestra ley de cooperativas, relacionada con la redacción del artículo 12 bis del proyecto de modificación de la Ley 20/1990, de 19 de diciembre, sobre el Régimen Fiscal de las Cooperativas (19-01-2021).
- Nos convocan desde Izarra Center ante nuestro previo ofrecimiento de colaboración después de haber realizado, ambas entidades, sus respectivas presentaciones, nos acompañaron para enseñarnos todas sus instalaciones (23-02-221).
- Asistimos a la jornada que se impartió sobre la adaptación de los estatutos sociales a la Ley 11/2019, de 20 de diciembre, de Cooperativas de Euskadi, organizada por KONFEKOOPE (10-02-2021).
- Asistimos por videoconferencia a la presentación de las ayudas del Gobierno Vasco para I+D+I, Tecnología, Emprendimiento y Transformación Digital (24-02-2021).
- Presentación del decimoquinto informe del observatorio de iniciativas empresariales cooperativas al Director de Economía Social D. Jokin Diaz Arsuaga y a dos de sus técnicos. (Lakua. Vitoria-Gasteiz, 25-02-2021).

- José Antonio Zarzalejos kazetariaren bideokonferentzian izan ginen. Antolatzailea: Nueva Economía Forum (2021-03-11).
- Idoia Mendia bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren hitzaldian izan ginen. Forum Europa. Tribuna Euskadi (Gasteiz, 2021-03-12).
- Prestakuntza juridiko kooperatiboko modulua eskaini genuen Enpresa Kooperatiboen Kudeaketari buruzko Espezializazio Ikastaroan, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean (Bilbao Berrikuntza Faktoria, 2021eko martxoaren 22an eta 24an).
- «Tokiko garapenean gizarte-ekonomia sustatzeko jardunbide egokiak» web-mintegian hartu genuen parte (2021-04-15).
- 2020ko Jarduera Memoriari eta Enpresa Ekimen Kooperatiboen Behatokiaren Hamaseigarren Txostenari buruzko prentsurrekoa (Ercilla hotela, Bilbo, 2021-04-16).
- Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren funtzionamendu telematikoa proba gisa abian jartzeko aurkezpen-ekitaldian izan ginen (Gasteiz, 2021-04-20).
- Ereduko kooperatiboari buruzko «Kooperatiba, abantaila asko dituen sozietate-eredua» pilula eskaintzea, bideokonferentziaren formatuan eta aurrez aurre, Mondragon City Challenge ekitaldiaren lehenengo edizioan parte hartu zuten 20 taldeei (Garaia Berrikuntza Gunea, Arrasate, 2021-04-27).
- Kooperatibek hasierako urteetan dituzten laguntzei buruzko bideokonferentzian hartu genuen parte Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzarekin batera (2021-04-27).
- Kooperatiba-sozietate txikiengatik inprimakien Vademécumaren aurrerapenaren aurkezpena (KONFEKOOP, Gasteiz, 2021-05-20).
- Work-Lan Social ekimenaren aurkezpenean eta sari-banaketan izan ginen (Salestarren ikastetxea, Bilbo, 2021-05-21).
- KONFEKOOPen Ohiko Batzar Nagusian izan ginen (Miñako Teknologia Parkea, 2021-05-26).
